

DNDBrako laburpena

106/2016 EBAZPENA, apirilaren 12koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, 2016ko udaberriko eta udako laguntzen deialdia egiten duena irakasleen atzerriko prestakuntzarako.

38/2003, azaroaren 17koa, Diru laguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a. artikuluen arabera, deialdiaren laburpena argitaratu behar da. Testu osoa Diru-laguntzen Nazioarteko Datu Basean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengo oinarria: Hartzaileak

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan zein Hizkuntza Eskola Ofizialetan atzerriko irakaskuntzak (ingelesa, frantsesa edo alemana) edo atzerriko hizkuntzetan (IIP, AIP edo AAEE) irakasten dutenak.

Bigarren oinarria: Xedea

Hezkuntza Departamentuak gehienez ere 40 laguntzarako deialdia egin du, Foru Komunitateko Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan zein Hizkuntza Eskola Ofizialetan atzerriko irakaskuntzak (ingelesa, frantsesa edo alemana) edo atzerriko hizkuntzetan (IIP, AIP edo AAEE) irakasten dutenentzako, 2016ko udaberrian eta udan atzerriko ikastetxe eta unibertsitateetan prestakuntza ikastaroak egin ditzaten.

Hirugarren oinarria: Arauak.

Esteka honetan daude ikusgai:

http://www.navarra.es/home_es/Servicios/ficha/6299/Convocatoria-de-ayudas-a-la-formacion-del-profesorado-en-el-extranjero-en-primavera-verano-de-2016

Laugarren oinarria. Laguntzen zenbatekoa eta estaldura.

Guztira 40 laguntza emanen dira. Horietatik, 24 sare publikoko irakasleentzat (ingelesko 18, frantseseko 3 eta alemaneko 3) eta 16 sare itunduko irakasleentzat (ingelesko 12, frantseseko 2 eta alemaneko 2).

Gehienez ere 1.000 euroko laguntza jasoko da.

Laguntzen xedea da matrikula eta ostatua finantzatzea.

Bostgarren oinarria. Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko hamar egun naturaleko epea izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

2016ko apirilaren 25a

Hezkuntzaren Zuzendari Orokorra, Estebe Petrizan Iriarte.